

AHTren etorkizunaz



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK
MARTXAN-EKO KIDEA

Hamar urte bete berri dira, Lukun (Araba) *Euskal Y*-ren lehengo harria jarri zutela. Galdera ikur handia dabil oraindik proiektu txikitzaile horren gainean. Zenbat urte gehiago? Noiz eta nola jarriko ote diote azkena? Inaugurazioa oso modu diskretuan egin zen, komunikabideen presentzia urriarekin, arraro xamar Euskal Herriko historian diru gehien xahutzen duen azpiegitura (6.000 milioi euro, gaurko kontuen arabera) martxan jartzeko. Egia esan, obrak hasi aurretik beste hamar urte pasa ziren, kontrako mobilizazio eta interpelazio asko tarteko, 2006ko apirilean aurrekontuaren ituna sinatu zen arte.

Joan den urriaren 18an EAJk Madrilgo Kongresuan aurkeztutako legez besteko proposamenak *Euskal Y*-ren egin gabeko obrak planifikatu eta ekonomikoki ziurtatzeko, PP eta EH Bildu zein Podemos-en ezezko botoak jaso zituen. Galdera ikurra handitzen ari da. Denborak eta sosak ez daude finkaturik. Errekurtso ekonomikoak urriagoak dira krisi egoera batean eta ez du ematen epe ertainean Europa edo Madriletik dirua lortzeko erraztasun gehiago etorriko denik. EAJk 1.078 milioi euro aurreratu zituen 2014ra arte, gero kupotik deskontatu behar zirenak, baina galdera da: zenbat diru gehiago aurreratu ahalko du? Zenbat bider esan digute obra hau Madrilék eta Bruselak ordainduko dutela? Orain arte ez da horrela izan, eta aurrerantzean ematen du gero eta zalago izango dela. PPren Espaniako Gober-

nu berriak ez du ematen Euskal Herrian interes handirik duenik, bertoko ministro bat ere ez baitu izendatu.

Abiadura handiko proiektuak eta teknologiak hainbat diskurtso hegemoniko eratzeko erabiliak izan direla dio Diego Garcia Mejutok, Londresen AHTri buruzko tesi doktora irakurri duen lagun katalanak. *Towards a "Europe of Flows": Discourse, Power and Space in the Development of High-Speed Rail Line in the European Union* izenekoa. Argi dago, hasieratik Madrilgo gobernuentzat (PSOE zein PPrenak) AHTren proiektuak beste geografia eta beste garraio politiken kontzeptualizazioan –*Todos a Madrid en TAV* lema aldarrikatuz– eginda dagoela, EAJren *Euskal Y*-arekin konparatuz, horrek "Ardatz Atlantikoa indartzea" erabiltzen baitu. Hor dago luzapenaren koska!

Gasteizko eta Madrilgo interesak gero eta desberdinagoak ari dira suertatzen. Eta Madrilék zartagina kirtenetik du helduta. Inork ez daki zertan, noiz eta nola bukatuko den auzi hau baina AHTren aurkako mugimendu indartsuago batek, duela hamar urte zegoenaren modukoak, lagun lezake AHTren etorkizuna definitzen. Urgentzia ekologikoa eta premia sozial larrien garaian gaudete eta diru publiko gehiago obra honetan galtzea arduragabekeria itzela da. Munduko bidegorririk garestiena ari dira eraikitzen, Bergarako Hilario-
ren berbetan. ■

Salbuespena



Miren Artetxe

BERTSOLARIA

1894ko udazkenean Aña Etxegarai *Debrua*-k irabazi zuen Hazparneko Euskal Bestetako bertso-sariketa. *L'Avenir* egunkariko kronista jaunak, ezusteko harrigarri hura azpimarratzen du: "Lehen sexu indartsuari soilik zegokion –bertsolaritzaren– generoa, baina, orain gain hartu dio sexu ahulak".

Emakumeak irabazi izana sorpresa, beraz, berriz. Ez baitzen lehen aldia hura. Mariana Hargainek irabazi zuen Kanboko sariketa 1888an. 1869an, Maria Luixa Erdozio izan zen garaile Saran –baita handik sei urtera ere–. D'Abbadie jaunak ezkontza eskaera jarri omen zien gaitzat

azken horri eta Jatsuko zapatariari. *Le Courier de Bayonne*-n aipatzen du Julien Vinson jaunak plaza irriz leherrarazi zutela. Gehitzen du, alta, ez zela ohikoa emazte bertsolariak kantuan aritzea. Sariketa berean, bi urte berantago, bostetik hiru bertsolari emazteak ziren.

Bertsoa bertso denetik ari izan dira emazteak bertsotan. Eta beti egon dira botere-mekanismoak plazara agertu ez edo plazatik desagertu zitezen. Daitezten. Azpimarragarria ez baita soilik mekanismo horiei aurre egin zieten emakumeak egon izana beti. Azpimarragarria, berez, emakume horiek ikusezin ala salbuespen bihurtu izana bera baita. ■